

Errefusa atez ate hasiko dira biltzen Anoetan berriro

Azken hilabeteetan edukiontzietan egin dute bilketa, eta emaitzek okerrera egin dutela ikusita, berriro ere aurreko sistemara itzultzea adostu dute EH Bilduk eta EAJ-k // 6

Otsailean hasiko dira Orendaingo kultur etxeko obrekin

Urriko haizeteak kultur etxeko teilatua eta frontoiko teilatuko hainbat zati eraman zituen; frontoia konponduta, zabalik dago, baina, kultur etxeko lanekin ez dira hasi oraindik // 5

Zumarditxikia eta kultur etxea berritzeko proiektuak abian

Zumarditxikia herritarren eskura jartzea da Tolosako Udalaren legealdiko helburu nagusietakoa // 2

Tolosa eta Amasa- Villabona eremu gorrian daude

Leaburu-Txarama eta Ibarra zerrendatik atera dira, eta ondorioz, gaurtik zabalik da ostalaritza // 3



Tolosaldea Garatzeneko teknikariak eta udaletako ordezkariak, irudi berria aurkezteko eginiko ekitaldian. ATARIA

Saretzea indartu nahi du Tolosaldea Garatzenek

Eskualdeko garapen agentziak irudia eta webgunea berritu ditu, eta izaera berri batekin egingo du lan, «herritar, erakunde eta enpresetara gerturatzeko» // 4



**ZATOZ
SAMANIEGO
BISITATZERA**
Eskaneatu QR kodea
eta hitzartu zurea



Informazioa
samaniego-tolosa.hezkuntza.net
943 651 063 / 688 867 570

AURREMATRIKULA IREKIA URTARRILAREN 18TIK 29RA

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

ESKOLA EUSKALDUNA, INTEGRATZAILEA ETA BIZIA

**ZATOZ ORIXE
EZAGUTZERA**
Eskaneatu QR kodea
eta ezagutu gaitzazu!



Informazioa
orixebhi.hezkuntza.net
943 899 289 / 942 899 288



0-18 urte bitarteko heziketa eskaintza publikoa

‘Ahardikeriak’ eleberria, Galtzaundiren irakurle taldearen gaurko saioan

Erredakzioa Tolosa

2021ean ere euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin jarraituko du Galtzaundiren irakurle taldeak. Urtarrileko saiorako, Marie Darrieussecq idazle baionarraren *Ahardikeriak* lana aukeratu da, Joxan Elosegik euskarara itzulia. Gaur izango da saioa, 19:00etan, kultur etxean, eta ohiko moduan, Yurre Ugartek dinamizatuko du.

Hitzordua guztiz irekia bada ere, parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea. Horretarako, www.galtzaundi.eus webguneko galdetegia bete behar da eta ondoren, e-mail bidez bidali-

ko dira saioan parte hartzeko jarraibideak. 10 laguneko muga jarri dute saio bakoitzean.

Liburuak sekulako arrakasta izan zuen Frantzian. 600.000 aletik gora saldu ziren, eta dagoeneko 45 hizkuntzatara itzuli da. Aski bitxia da istorioa: lurrindenda batean lan egiten duen neska bat zerri-eme bihurtu da. Neska hori dendako bezeroekin prostituitzen da, baina antza, ez du ekintza horren kontzientziarik. Umore beltza da nagusi, eta pasarte batzuk ametszeko munduetatik ateratakoak dirudite. Zenbaiten ustez, egungo gizarte kontsumistaren eta botere egituraren fabula gordina da liburuak.



ELKARTASUNA, GAZTEEI

Ernai gazte antolakundeak deituta elkarretaratzeak egin zituzten, pasa den ostegunean, Anoetako plazan eta Tolosako Laskorain Ikastolan, Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteei babesa adierazteko helburuarekin. 2018ko otsailean atxilotu zituzten, «armak, munizioak eta lehergailuak edukitzea, eta horiek helburu terroristarekin gordetzea eta trafikatzeara leporatuta. Fiskaltzak zortzi urteko espetxe zigorra eta zazpi urteko zaintzapeko askatasuna eskatu ditu haietako bakoitzarentzat. ERNAI TOLOSALDEA

Mondragon Unibertsitatea
Goi Eskola Politeknikoa

Goierriko Campusa
ORDIZIA

INGENIARITZA
MEKANIKOA
GRADU DUALA

ATE IREKIAK
URTARRILAK 28
18:00

ONLINE

ATE IREKIAK

Eman izena
www.mondragon.edu/eu/ate-irekiak

Zumarditxikiko eta kultur etxeko proiektuen prozesuak, martxan

Hilabete dute enpresek proposamenak aurkezteko; behin esleitutakoan, zazpi hilabete izango dituzte Zumarditxikiko proiekturako; kultur etxeko proiekturako, berriz, hamar

Izena eta Abizena Herria

2019-2023 Legealdi Planean jasotako bi proiektu garrantzitsuren idazketa prozesuak abiarazi ditu Tolosako Udalak. Zumarditxikia herritarren eskura jartzea da Udal Gobernuaren legealdira helburu nagusia eta proiektu estrategikoa. Kasu honetan, aurreproiektu bat dago egin, herritarrekin Tolosatzen prozesuaren baitan partekatu eta landu zena, herritarren proposamen eta iradokizunak kontuan izateko. Aurreproiektu hori da orain garatuko dutena.

<<HIRIGUNEARI ARNESA ESKAINIKO DION BIRIKA>>

Espazio publiko honen berrantolaketa egitea da proiektuaren helburu nagusia, garai batean leku honek izan zuen erabilera soziala berreskuratu asmoz, gaur egungo beharretara egokituz, eta Tolosako Mugikortasun plana kontuan hartuz.

Berdeguna bat eratu nahi dute; espazio naturalagoa, inklusiboagoa, irisgarriagoa, herritar bakoitzaren naturarekiko harremana areagotuko duena, gizarte ekintzak antolatzeke proposa izango dena eta genero perspektibari dagokionez, eremu segurua izango dena. «Hirigune historikioari arnasa eskainiko dion birika izango da», azaltzen dute udaletik.

Proiektuaren idazketak bi fase izango ditu: lehenik, azterketa lanak egingo dira, eta gero, exekuzio proiektua garatuko da. «Herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango da proiektuak duen garrantziagatik, eta bi saio egingo dira tolosarrekin, bata, proposamenak jasotzeko, eta bestea, proiektua aurkezteko».

KULTUR ETXEAN, LIBURUTEGIA

Aurreko legealdian, eraikin sozio-kulturaleri buruzko azterketa egin zuen udal gobernuak, azpiegituren eta bertan eskaintzen ziren zerbitzuen inguruko informazio zehatza izateko, herrita-



Garatuko duten Zumarditxikiko aurreproiektua eta kultur etxea. ATARIA / J. A.

rrei zerbitzu hobea eskaintzeko helburuarekin. Azterketan atzemandako beharrak eta lehentasunak kontuan izanda, eraikinak berri eta berrantolatzeke planigintza egin dute, eta kultur etxea eraberritzeko proiektuari eman zaio lehentasuna, gune honek duen erreferentzialtasun eta erabilera dela eta.

«Espazio hau zaharkituta eta gain-okupatua dago eta irisgarritasun baldintzak ez daude bermatuta», adierazten dute. Beste espazio batzuetan ere antzeko arazoak dituzte, adibidez, Aranburu Jauregiko artxiboan eta Udal Liburutegian. Horregatik, eraberritze proiektuarekin batera, erabilera berriak planteatu nahi dira kultur etxean, baita espazioa berrantolatu ere, liburutegi berria bertan kokatzeko.

Enpresek, beraz, kultur etxea eraberritzeko eta liburutegi berria bertan kokatzeko proiektua garatu behar dute. Liburutegiak, gainera, eskakizun berrietara egokitu beharko du, liburutegi

inklusiboa izan dadin. Herritarrek izanik herrian bizi eta azpiegitura hau gehien erabiltzen dutenak, udaletik ezinbestekotzat jotzen dute euren parte hartzea proiektua garatzeko. «Eraikin sozio-kulturalen inguruko azterketa egin zenean jada herritarrek egin zituzten proposamenak eta horiei erantzutea du helburu liburutegi bateratua eta berritzaila kultur etxean kokatzeko».

PROIEKTUETARAKO EPEAK

Hilabeteke epea dute enpresek euren proposamenak aurkezteko. Gero, proiektuen idazketa lanak esleitu dituzte udalak; Zumarditxikiko proiektua gauzatzeko zazpi hilabete izango ditu enpresa esleipendunak, 80.000 euroko aurrekontuarekin (BEZ barne). Kultur etxeko proiektua egiteko, berriz, hamar hilabete eta 85.377,6 euroko aurrekontua (BEZ barne). Gauzak horrela, urte amaierarako bi proiektuak eskuartean izatea aurreikusten dute udaletik.

Basalan Arrospide enpresako langile bat hil da

Erredakzioa Lizartza

ELA sindikatuak ohar batean jakinarazi duenez, Lizartzako Basalan Arrospide enpresan lan egiten zuen langile bat hil zen pasa den astean Ezkio-Itsason.

Langilea aurretik moztutako enbor batean adarrak kentzen ari zela beste adar batek jo ondoren hil zen. Donostiako Ospitale-
ra eraman zuten eta ordu batzuk geroago hil zen.

Zetak taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du Ibarran

Erredakzioa Ibarra

Zetak taldeak kontzertu akustikoa emango du larunbatean, hilak 30, Belabieta kiroldegian. Udalak antolatu du eta gazteei zuzenduta egin duela esan du. Gonbidapenak eskuratu behar dira kontzertura joateko eta atzo arratsaldetik eskatu daitezke kultur etxean, 10:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Pertsona bakoitzak gehienez bi sarrera hartu ahalko ditu eta gonbidapenak izendunak izango dira. Egunean bertan, sartzeko ateak 17:30ean irekiko dira eta emanaldia 18:00etan hasiko da. COVID-19a dela eta ezarritako azken neurriak direla medio, udalak gogoratu du ibartarrak bakarrik gerturatu ahal izango direla.

Tolosak eta Villabonak eremu gorrian jarraitzen dute

Leaburu-Txaraman eta Ibarran ostalaritzak ireki ahal izango du gaurtik aurrera; ostalariak haserre atera dira kalera Amasa-Villabonan eta Tolosan

Erredakzioa

Atzotik da indarrean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerri guztiak ixteko eta gehienez lau pertsona biltzeko agindua. Herritarrek, hala ere, euren udalerriak eremu gorrian dauden edo ez izan beharko dute kontuan ostalaritza irekita dagoen jakiteko. Astelehenarekin argitaratzen du Osasun sailak eremu gorrian dauden herrien zerrenda, eta atzokoaren arabera Tolosa eta Amasa-Villabona dira eremu gorrian jarraitzen dutenak, Leaburu-Txarama eta Ibarra eremu gorritik atera baitira. Amasa-Villabonan eta Tolosan ostalaritzak itxita jarraituko du, beraz, hurrenez hurren, 642 eta 623ko intzidentzia tasa baitute.

ATERA DIRENAK

Leaburu-Txarama eta Ibarra dira eremu gorritik atera eta gaurtik tabernak eta jatetxeak ireki ahalko dituztenak. 5.000 biztanletik beherako herrietan, herriko tasaz gain, osasun eremuko intzidentzia tasa ere begiratzen dute, eta azken zazpi egunetan bi positibo edo gehiago izan dituzten ere ikusten dute. Bada, osasun eremuei begirata, Alegiako eremua (297) kolore horian dago,

Ibarrakoa (483) eta Villabonakoa (488) laranja ageri dira, eta Tolosakoa (605) gorritz dago.

Ibarrako Udalak gogoratu du herria eremu gorritik atera bada ere, Jaurilaritzaren aginduz, itxita daudela EAEko udalerri guztiak. Igor Zapirain alkateak nabarmendu du ardura herritar guztientz delako: «Ez dira garai errazak, baina herria guztion artean zaindu behar dugu. Herritar guztiok arduraz jokatu behar dugu gainerakoon osasuna eta ongizatea bermatzeko».

Bestalde, Irura pasa den ostegunean eremu gorrien zerrendan sartu zuten, baina «akats» bat izan zela esan zuen Osasun sailak hurrengo egunean. «Akats bat egon da eta Irurako udalerriari dagokion oinarritzako eremuan, azken 14 egunetan COVID-19k eragindako kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua ez da 507,39 kasukoa, 463,54 kasukoa baizik. Era berean, udalerri horretan, kasu positiboak ez dira 11, 6 baizik».

OSTALARIEN HASERREA

Ostalaritza da COVID-19ari lotuta hartzen diren erabakien ondorio zuzena jasotzen duen sektoreetako bat. Astelehen eta ostegunetan argitaratzen duten



Ostalariak kalera atera ziren atzo, Tolosan. J. ARTUTXA

txostenari lotuta ireki edo itxi behar dute eta horrek kalte handia egiten diela diote. Euren egoeraren berri eman eta salatzeko mobilizazioak ari dira egiten. Larunbatean Amasa-Villabonako ostalariak kalera atera ziren eta argi utzi nahi izan zuten «pandemiaren kudeaketa txarra» euren ardurapean utzi nahi izan dutela. «27 positibo nahikoa dira gure lantokiak, gure bizitzak dardarka jartzeko, lepoan dugun soka gehiago estutzeko», gaineratu zuten. Agerraldi baten fokua ostalaritzan ez egonagatik ere, lantokiak ixtera behartzen dituztela esan zuten. «Bost axola agerraldia non dagoen, udaletxean, industrian, komertzio handietan... Horiek ez dituzte ixten, baina ostalaritza bai. Onartezina da».

Tolosan atzo atera ziren kalera. Dozenaka herritar bildu ziren udaletxe aurrean, egungo osasun egoeraren ondorioz sektoreak bizi duen egoera larria salatzeko. Indemnizazioak eskatzeaz gain, ezartzen zaizkien neurriek gogor eragiten dietela azaldu zuten. «Ezin dugu horrela jarraitu, orain ireki, orain itxi»,

aipatu zuten. Agintarien aldetik erantzun bat izatea ere espero dute. «Diru laguntzak egongo zirela hitzeman zuten, baina oraingoz ez dugu horrelakorik jaso». Egoera ikusita iragarri zuten astelehenero elkartuko direla aurrerantzean Tolosako udaletxe aurrean.

35 POSITIBO, AZKEN ORDUETAN

COVID-19an positibo eman dutenen kopuruari lotuta, 35 positibo izan dira ostiraletik igandera Tolosaldean. Ostiralean, 17 atzeman zituzten (Tolosan 9, Zizurkilen 4 eta Anoetan, Ibarra, Orexan eta Amasa-Villabonan bana), larunbatean 8 (Tolosan 4, Leaburu-Txaraman 2 eta Alegian eta Anoetan bana) eta igandean 10 (Tolosan 5, Ibarra eta Amasa-Villabonan bina eta Amezketan 1).

Herenegun 9.483 test diagnostiko egin zituzten, eta, horietatik, 826 positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 243 atzeman zituzten. Ospitaleei dagokienez, 48 pertsona ospitaleratu zituzten herenegun, eta COVIDa duten 122 pertsona ZIUn daude.



zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

Imanol Jazz kontzerturako bi sarrera.



Otsailak 3, 20:15,
Leidor antzokia (Tolosa).

Konpromisoa antzezlanerako bi sarrera zozkatuko ditugu.



Urtarrilak 31, 19:00,
Gurea antzokia (Villabona).

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 ALBAOLA ITSAS KULTUR FAKTORIA

Familiarentzako sarrera
(bi nagusi eta ume bat)

albaola.com • Pasai San
Pedro • 943 39 24 26



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 EKAINBERRI museoa

Bi lagunentzako
sarrera bikoitza

ekainberri.com •
ZESTOA • 943 868811
info@ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 / www.ataria.eus webgunean • urtarrilaren 15etik, 28ko 11:00ak arte.

Eneritz Maiz Etxarri

Garai berrietara egokitu nahi izan du 25 urte baino gehiago dituen Tolosaldea Garatzen garapen agentziak. Eskualdea batzen eta garatzen egiten du lan Tolosaldea Garatzenek. Anitza da Tolosaldea, eta aniztasunean oinarrituz saretu du eskualdea: «Pieza guztiak lotuz eraikitzen baita herri baten etorkizuna». Enplegua, Enpresak, Turismoa, Udalak, Ekintzailetza, Aniztasuna eta Kontsumo Bulegoa biltzen ditu garapen agentziak, eta marka berriaz gain, www.tolosaldeagaratzen.eus webgunea berritu dute, eta baita sail bakoitzari dagokion irudia ere.

46.000 biztanle, 28 udalerri, 4.000tik gora enpresa-establezimendu eta 54 industrialde. Hori da Tolosaldea. Saretze lanean ari dira, eta «saretze horrek ekarriko du elkarlanerako aukera, eta une honetan, elkarlana da baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko eta helburu sendoak lortzeko bide bakarra», dio Joxe Luis Urdangarin garapen agentziako arduradunak. Herritar, enpresa eta erakundeengana gehiago gerturatzea dute helburu, eta komunikazio lan sakonago bat egitea.

Iker Urruzola Zizurkilgo alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak erreferentziazko irudia izatea nahi duela adierazi du: «Ezin dugu aurreikusi zer izango dugun etorkizunean, baina garapen agentziaz garbi geneukan irudiak eraldaketa bat merezi zuela; gaurkotu egin behar zela, alegia». Ardatz beretik kudeatzeko guztia, lanketa ezberdinak egiten ari dira; «erreferentzialtasuna lortu behar dugu Tolosaldean, eta eskualdea osotasunean landuko duen erakunde bat nahi dugu», gehitu du.

Olatz Peon Tolosako alkate eta garapen agentziako lehendakariordeak enpleguan eta enpresan jarri du azpimarra. «Enpresak barne biltzen du ekintzaile-



Olatz Peon, Iker Urruzola eta Joxe Luis Urdangarin, pasa den ostegunean egin zuten aurkezpen ekitaldian. CHROMA

Irudi eta webgune berria aurkeztu ditu Tolosaldea Garatzenek

Herritar, erakunde eta enpresetara gerturatzea du helburu garapen agentziak, eta aldaketa komunikazio lan sakonago baten abiapuntutzat dute; zazpi sailei ikusgarritasuna eman nahi die

tasuna alde batetik, eta baita turismo alorra ere. Turismoak azken urteetan bilakaera izugarria izan du, aurreko urtean salbu». Bi alor horiek konektatzea dute helburu Peonen hitzetan: «Bi lan ildo nagusi ditugu: bata, eskualdeko garapenean lagunduko duten proiektuak bilatzea eta bultzatzea, eta bestetik, ditugun baliabideak eta baliabide horien informazioa modu zuzenagoan helaraztea, herritarrengana eta enpresengan modu argiagoan gure mezua helarazteko».

«Web orria irisgarria, erakargarria, erabilerraza eta berritzailea izatea» espero du Joxe Luis Urdangarin garapen agentziako arduradunak. Erakusleho nagusitzat dute, harrera pertsonalaren ostean. «Web orri bizia izatea nahi dugu, gero eta joera gehiago dugulako mundu digital honetan horrelako tresnen bidez komunikatzeko».

LAN ESKAINTZAK WEBGUNEAN
Guztiz itxuraldatu dute webgunea, informazioa modu antola-

tuagoan eta sakonago eman ahal izateko, eta gailu guztietara egokitzeko.

Funtzionaltasun gehiago ere izango duela azaldu dute, eta gauza askoren artean, lan-eskaintzak eta lan-poltsak argitaratuko dituzte, CV-ak uzteko aukera emango du, eskualdeko enpresen proiektuen berri emango dute, Lehiberri Zentroko aretoak alokatu ahal izango dira edo kontsumo alorreko zalantzak argitzen lagunduko dute. Marka berria egitea eta webgunea berri-

tzea Tolosako Chroma Estudioaren lana izan da.

UDALEN APUSTUA

Joxe Luis Urdangarin ustez, ez dute itxura aldaketa soil bat egin, eta izaera berri bati begira ere ari dira lanean: «Aurrera egiteko lehentasunak berrantolatu eta tresna berriak diseinatzen ari gara. Saretzea sustatu, informazioa eman, eragileen zerbitzura egon, eta epe luzerako hausnarketa kolektiboen bidez, estrategia berriak definitu nahi ditugu».

Tolosaldeko 28 udalek egindako apustua ere nabarmendu du Urdangarin: «Tolosalde Garatzen, Tolosaldeko udalek sortutako eta mantendutako erreminta da, eta erreferentzialtasuna ezinbestekoa da guretzat. Horrela, gure zerbitzu publikoak herritar gehiagorengana eta eragile gehiagotara iritsiko direlako».

Garapen agentziako langileak laguntzaileak baino ez dira Urdangarin azaldu duenez: «protagonistak herritarak eta eragileak dira».

Sail bakoitzeko arduradunek ere beren egitekoa dute garapen agentzian, eta lan ildoak zehaztuak eta aurrera begirako erronkak ere esku artean dituzte.

AURREKO LANA

Marka berriak 2020ko martxoan abiatu zen analisi sakon bat du oinarrian, eta irudiaren nondik norakoak definitzeko, herritar eta eragileek agentziarekiko duten pertzepzioa ezagutu nahi izan dute.

76 pertsona elkarriketatu dituzte, eta alor ezberdinetako beste 120ren iritziak bildu dituzte. Ondorioak argigarriak izan direla diote: «Garapen agentzia ezagutu arren, askok ez dute egiten den lana osotasunean ezagutzen, ezta zertarako den jakin ere. Are gehiago, gai edo zerbitzu konkreturen batekin lotu izan dute gehienek».

**AURREMATRIKULA
IREKIA
URTARRILAREN
18TIK 29RA**



ikastolak
hezkuntza
eraldatzen



Orendaingo kultur etxeko teilatuko lanekin otsailean hastea espero dute

Orendaingo Udala hilabete «gogorrak» bizitzen ari da, baina dirua izan edo ez, teilatua ahalik eta azkarren egin nahi dute

A. Imaz – E. Maiz Orendain

Hiru hilabete geroago, egoera berean jarraitzen dute Orendainen. «Oraindik arrastaka segitzen dugu arazo berarekin», esan du Miel Angel Arsuaga alkatea. Urriaren 20ko haizete handiek kultur etxeko eraikinaren teilatua eraman zuten, eta baita frontoiko teilatua hainbat zati ere. Frontoia konpondu dute, eta zabalik dago, baina, kultur etxearekin ez dira hasi oraindik.

Alkatea onartu du «luze» jozten dutela horrelakoek; «gainera, seguruen kontu hauek ia pintzekin hartu behar izaten dira». Dena den, teilatua egiteko lanak behintzat hasi dituztela azaldu du Arsuagak: «Duela hamabost egun jarri genituen teilatua egiteko lanak abian, eta hurrengo

hilabetean hasiko egiten aurreikusten dugu».

Denborarekin gauzak lasaiago ikusten badira ere, alkateak urriaren 20ko eguna «nahiko triste» moduan definitzen du. «Ez kultur etxeko eraikinagatik soilik, ia etxe guztietan izan baitzen kaltea, eta ondorioz, tristea izan zen eguna». Hori bai, herriarren jarrera nabarmendu du: «Jendea oso ondo portatu zen, eta guztien laguntzarekin, auzolanean, oso denbora gutxian bueltatu ginen lehengo egoera, baina teilatua falta zaigu».

LAGUNTZARIK GABE

Herri txikia da Orendain, eta orain artean behintzat ez dute laguntzarik jaso: «Gipuzkoako Foru Aldunditik egunean bertan deitu ziguten dirua izango zela

esanez, baina harrezkero, ez dugu berririk, gaur arte. Ez dugu deitu ere egin, badakite hemen zer dagoen, eta nire ustez beraiek izan behar dute ardurak hartzen lehenak, are gehiago horrelako herri txiki batean denean». Kritiko agertu da alkatea: «Beste gauza batzuetarako ondo askatzen dituzte milioiak».

Orendaingo Udalaren urteko aurrekontua 300.000 euroren bueltakoa izaten da, eta egin beharreko obren kostua gutxi gorabehera 400.000 eurokoa izango dela aurreikusi dute.

Garbi dute teilatua egin behar dutela: «Seguruak ez digu arazorik jartzen. Beraiek ez bada, seguruen kontsoltzioak ordainduko digula diote. Ez daukagu dirurik, baina guk erabaki genuena da egin egin behar dugula. Or-



Frontoiko teilatua konpondu, zabalik dago pilotalekua. E. MAIZ

daintzeko garaia iristean dirurik ez badugu, kreditu baten bitartez ordaindu beharko dugu».

Seguruen esku dagoela guztia dio Arsuagak: «Seguruak ordaintzen du edo seguruak bilatzen du zerk huts egin duen edo nork izan duen akatsa. Kasu honetan, ziur aski seguruen kontsoltzioak

ordainduko du, baina, erabakitzen dutenaren zain jarraitzen dugu».

Beraz, argia ikusten hasiak dira Orendainen. Dagoeneko lanak egingo dituen enpresa aukeratua dute, eta teilatutako egurrezko egitura egiten ari direla aurreratu du alkatea.



IREKITA

Ikaztegiako Udalak zabaldu du kiroldegiko zelaia. Adin guztietako herritarrei begira egokitu du, eta pasaden hastean ireki zuten herritarren erabilerarako. Txikieria batzuk baino ez dira falta udalaren esanetan, eta abenduko obrak ia bukatutzat eman ditu. Kirol ezberdinak praktikatu ahal izango dira hemendik aurrera edo paseorako edo atseden hartzeko ere erabili daiteke. E. MAIZ



Aurrematrikulazio
epea zabalik
Urtarrilaren 18tik 29ra

Aiztondoko
eskola
publikoa





EH Bilduko eta EAJko udal ordezkariak eta udal teknikariak, batzar aretoan egindako bileran. ATARIA

Errefusa atez ate bilduko dute berriro Anoetan

Edukiontzietan bildu dute errefusa hilabeteotan, baina emaitzak ikusita, aurreko sistemara itzultzea adostu dute EH Bilduk eta EAJk

Erredakzioa Anoeta

Martxoaren 1etik aurrera, errefusa atez ate jasoko dute Anoetan. 2020ko martxoan, COVID-19ak eragindako alarma egoeraren ondorioz, errefusa edukiontzi bidez biltzen hasi ziren herrian eta konfinamendua amaitu ostean, udalean ordezkariak duten bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJk, beste sei hilabetez errefusa edukiontzi bidez jasotzen jarraitzea adostu zuten.

Udaletik adierazi dutenez probaldiaren helburuak bi ziren:

«Alde batetik, lurrean zabor poltsak uzteko joera egonkortuarekin bukatzea, honek elkarbizitza eta osasunean dituen arazoekin amaituz; eta bestetik, ikustea ea herritarrak gai ziren errefusa edukiontzi bidez bilduta, 2020. urte hasierako %74ko gaikako bilketa datuetara iristeko». Helburuak dira bete, ordea. Emaizte okerrera egin dute eta errefusa atez ate biltzera itzultzea adostu dute bi alderdiek.

Sei hilabeteko probaldiaren ondoren, Anoetako Udalaren esanetan datuak ez dira «batere

onak». Errefusa kopuruak «nabarmen» egin du gora. Udalak abenduan herrian banatu zuen esku orrian aipatzen zuenez, urrian 15.000 kilo errefus bildu ziren, esate baterako. «COVID-19an positibo emandako etxeetan hondakin guztiak errefusaren edukiontzira botatzeko agindua badago ere, izan dira positiborik gabeko hilabeteak (iraila, esate baterako) eta errefusa kopurua, hala ere, esanguratsua izan da».

Horrek eragin du, besteak beste, gaikako bilketa tasaren ehu-

nekoak behera egitea. Iazko urtarrilean %74,05koa izan zen, apirilean %61,34koa, uztailean %69,36koa, urrian %66,22koa eta abenduan %66,61koa. «Kontrolik gabeko errefusa bilketak, beraz, emaitzak okertu ditu eta frogatu du, oraindik ere, gai honetan herritarrak kontzientziazten jarraitzeko lan handia dagoela. Gainera, edukiontziak jartzeak lurreko poltsak gutxitu arren, ez ditu guztiz desagerrarazi», esan dute udalek. Honenbestez, martxoaren 1etik aurrera, errefusa atez ate

bilduko dute berriro Anoetan, udalaren esanetan hori baita, gaur gaurkoz, «emaitzarik hoberenak ematen dituen sistema».

Aurrez adostutakoa betetzera dator erabakia, iazko uztailean Anoetako Udalean ordezkariak duten EH Bilduk eta EAJk gaia- inguruko akordioa izenpetu baitzuten. Abendura bitartean errefusa edukiontzi bitartez biltzen jarraitzea, hondakinen sensibilizazio kanpainak indartzea eta jarraipen zorrotza egitea adostu zuten orduan. Bide batez, epealdi horretan, uztailetik abendura, birziklatze tasa %74tik jaisten baldin bazen, errefusa atez ate biltzera bueltatuko zirela ere erabaki zuten bi alderdiek elkarrekin. Helburua lortu ez dela ikusita aurreko sistemara itzultzea erabaki dute orain.

Hamabostean behin bilduko den hondakinen jarraipen batzorde bat sortzea adostu dute alderdiek

EH Bilduk eta EAJk, beste hainbat helburu ere finkatu dituzte 2021ari begira: gutxienez, %75eko gaikako hondakin bilketa tasa lortzea; hamabostean behin elkartuko den hondakinen jarraipen batzordea sortzea; eta kaleko zabor poltsak desagerraraztea. Udal bulegoetan, ingurumen sailean, herritarrei hondakinen inguruko informazioa emateko prest direla jakinarazi dute udal ordezkariak: 943 65 12 00 (6 luzapenarekin) edota ingurumena@anoeta.eus helbidetan.

Auzo-konpostaren analisiaren emaitzak ere eman dituzte eza-gutxera eta udalak nabarmendu du Anoetan kategoria goreneko konposta lortu dutela: «Eredu honekin jarraitzeko bultzada ederra da, zorionak erabiltzaile guztiei».

Hilberriak eta urteurrenak



Tudor Munteanu

"Damian, Elia eta Eva Dina ikasleen aita"



IRURAKO IKASTOLAKO
kideen izenean

IRURAN, 2021eko urtarrilaren 26an.

Lupe Etxabe Agirre

Mari Jose eta Izaskun Alkaiaga gure lankideen ama.
Atzo hil zen 89 urte zituela.

-Goian bego-



Maizpide Euskaltegiak bat egiten du
famiaren saminarekin une latz hauetan.

LAZKAOn, 2021eko urtarrilaren 26an

Ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

9. jardunaldia

Castro Urdiales	2
Lauburu	4

Laskorain eta Kukuyaga Etxebarri arteko partida bertan behera geratu da

Sailkapena

1. Otxartabe	19p
2. Juventud del Circulo	16p
3. Lauburu Ibarra	16p
4. Gora Grupo Iron	15p
5. Auzoak de Zierbena	9p
6. Kukuyaga Etxebarri	8p
7. Castro Urdiales	7p
8. Laskorain	2p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (8)

Castro Urdiales (7)	
Auzoak d. Zierbena (5)	

Lauburu (3)

HIRUGARREN MAILA

9. jardunaldia

Lagun Onak	8
Tolosala	5

Sailkapena

1. Elorrioko Parra taberna	22p
2. Alipendi Zalditxo Araia	19p
3. Afantxo Pesc. Ferreres	15p
4. Mahastiak Labastida	13p
5. Antiguoko	12p
6. Gernikako Lagunak Xaibor	7p
7. Lagun Onak	6p
8. Tolosala	3p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala (8)

Elorrioko Parra taberna (1)	
-----------------------------	--

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

9. jardunaldia

Romo Indupime	25
Tolosa Eskubaloia	24

14. jardunaldia

Tolosa Eskubaloia	20
Helvetia Anaitasuna	27

Sailkapena

1. Helvetia Anaitasuna	22p
2. Barakaldo	21p
3. Hierros Servando Eibar	19p
4. Beti-Onak	17p
5. Tolosa Eskubaloia	16p
6. Ereintza Aguplast	16p
7. Uharte	16p
8. Easygas Urduliz	14p
9. Egia	12p
10. Jacar San Antonio	11p
11. Estudio Matmata Zaragoza	10p

12. Dominicos Zaragoza	8p
13. Romo Indupime	6p
14. Alcorta Forging Group	5p
15. Navarrete	5p
16. Avefor Huesca	0p

Hurrengo jardunaldia

Uharte (7)

Tolosa Eskubaloia (5)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

Atsedena izan dute asteburuan

Sailkapena

1. Real Sociedad B	27p
2. Añorga	16p
3. Bizkerre	16p
4. San Ignacio	15p
5. Oiartzun	13p
6. Aurrera de Vitoria	9p
7. Tolosa CF	7p
8. Arratia	1p

Hurrengo jardunaldia

San Ignacio (4)

Tolosa CF (7)

HIRUGARREN MAILA

14. jardunaldia

Tolosa CF	2
Real Sociedad C	3

Sailkapena

1. Gernika	28p
2. Sestao River	26p
3. Real Sociedad C	23p
4. Deusto	23p
5. Beasain	19p
6. Santutxu	19p
7. Tolosa CF	16p
8. Somorrostro	10p
9. Aurrera	8p
10. Balmaseda	7p
11. Urgatzi	6p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF-k atsedena du

Saskibaloia

1. MAILA GIZONEZKOAK

Redline Mekanika TAKE taldeak bost partida jokatu ditu guztira, eta horietatik lau irabazi ditu eta bat galdu du.

Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE

Leioa

1. MAILA EMAKUMEZKOAK

TAKE taldeak lehen hiru partida jokatu ditu bakarrik, ordutik liga etenda baitago, zehazki urriaren 18tik. Horietatik bat irabazi eta bi galdu ditu.

Bikote sendoa osatzen dute Altunak eta Mariezkurrenak

Olaizola II-Rezusta bikoari 10-22 irabazi diete binakakoaren laugarren jardunaldian

Imanol Garcia Landa

Binakako Pilota Txapelketaren laugarren jardunaldia jokatu dute asteburuan, eta Jokin Altunak eta Mariezkurrenak bikote sendoa osatzen dutela erakutsi dute. Sasoi onean dagoen eta Baiko enpresako erreferentziazko bikotea den Olaizola II-Rezustari 10-22 irabazi zioten, maila handia erakutsiz. Altuna III-Mariezkurrena II sailkapeneko bigarren postuan daude, hiru garaipen lortuta. Garaipen kopuru bera dute Olaizola II-Rezustak.

Bere aldetik, Erik Jakak eta Martija ordezkatzan zuen Bikuñak ezin izan zuten garaipena lortu Urrutikoetxea eta Imaz bikotearen aurka. 17-22 galdu zuten, eta oraingoz garaipen bakarra dute.

Asteburu honetan ezin izan du

Jon Ander Peñak jokatu, konfinatuta baitago. Bere ordezkariak Zubi- zarreta III.ak jokatu zuen, eta Al- bisurekin batera ezin izan zuten garaipena eskuratu, 22-14 galdu baitzuten Ezkurdia eta Ladis Ga- lartzaren aurka. Iñaki Artolaren ordezkariak ari da Bengoetxea VI.a, eta Arangurenekin batera atzo iluntzean zuten partida Elezkano II-Zabaleta bikoaren aurka.

Promozio mailan, Iker Elize- gik garaipenik lortu gabe jarrai- tzen du, Arteagarekin batera Elordi-Garmendiaren aurka 22-6 galdu ondoren.

BIZKAIA TORNEOA

Miren Larrarte bidaniarrak Gen- tzane Aldayrekin batera Bizkaia Torneoko bigarren partida galdu zuen ostiralean, 16-22, A. Alday eta Orbegoza bikotearen aurka. Azken hauek jokatu dute hiru- garren postua erabakiko den partida.

ALBERDIK EZ DU AUERRERA EGIN

Aurrera Tolosa klubeko Julen Alberdi zizurkildarrak ostiralean jokatu zuen Elite Mailako Lau

SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

1. Elezkano II - Zabaleta	3-0
2. Altuna III - Mariezkurrena II	3-1
3. Olaizola II - Rezusta	3-1
4. Peña II - Albisu	2-2
5. Urrutikoetxea - Imaz	2-2
6. Jaka - Martija	1-3
7. Ezkurdia - Ladis Galarza	1-3
8. Artola - Aranguren	0-3

(atzo gaueko partidaren emaitza falta da)

PROMOZIO MAILA

1. Salaberria - O. Etxebarria	4-0
2. Larrazabal - Eskiroz	3-1
3. Zabala - Erostarbe	3-1
4. Zubizarreta III - Uriondo	2-1
5. Elordi - Garmendia	2-2
6. Alberdi - Salaverri III	1-3
7. Eiguren V - Ruiz	0-3
8. Arteaga - Elizegi	0-4

(atzo gaueko partidaren emaitza falta da)

eta Erdiko Txapelketaren final- laurdenetako partida. Lemoa klubeko A. Etxebarria zuen aur- kari eta 18-22 galdu zuen. Hori horrela, Alberdi txapelketatik kanpo geratu da.

Eneko Labakarentzat izan da estreinako partida

Erredakzioa

Garfe enpresako binakako pilota txapelketari hasiera eman zaio asteburu honetan, eta estreina- ko partida horretan eskualdeko bi pilotarik elkarren aurka lehia- tu dira. Eneko Labaka aurrelari albizturtarrak Aldaberekin bate- ra Julen Urruzola asteasuarraren eta Santxoren aurka jokatu zuen, eta 5-22 irabazi zuten Labaka-Al- dabek. Txapelketako lehen pun- tua eskuratu dute, beraz.

Xabier Urbieta aurrelari astea- suarrak eta Julen Aizpuru atze- lari asteasuarrak ere parte har- tzen dute, elkarrekin bikote egi- nez. Beste hiru bikotek hartzen dute parte lehiaketan: Prado-Itu-



Garfe enpresako binakako txapelketa jokatzan duten pilotariak. GARFE

rriaga, Uribe-Merino II eta Eli- zalde-Bergera. Bikote guztiek el- karren aurka jokatu dute li- gaxkan, partida bakarrera, eta horren ondoren finalerdiak joka-

tuko dituzte: lehen sailkatuak laugarrenaren aurka eta biga- rren sailkatua hirugarrenaren aurka. Ekainean aurreikusten dute finala jokatzeara.



ASTEARTEA, 2021EKO URTARRILAK 26
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania, Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 26

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Irakurketa Kluba, liburutegia, 18:00: *Antologia de Spoon River*.
Tolosa. Galtzaundiren irakurle taldea, 19:00, kultur etxea: *Ahardikeriak*.

Erakusketak

Tolosa. *Sorginak!* erakusketa Aranburu jauregian.
Tolosa. Argizaiola erakusketa Aranburu jauregian.
Tolosa. *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak*, Topic-en.
Zizurkil. *Munduari itzulita* erakusketa, Plazida Otaño liburutegian.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!; **11:00.** Elkarrizketa; **11:30.** Gaurkoan Tolosalde; **13:30.** Gaurkoan Tolosalde; **16:30.** Martaren eskulanak; **21:30.** Gaurkoan Tolosalde; **22:00.** *Mujeres de luz* dokumentala.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina: Pren-tsari begira, eguraldia, kolaboratzaileen tartea... **15:00. Letren errepublika.** Literaturari buruzko saioa; **16:00. Zebrabidea.** Arrosa sareko irratiaren eginiko magazina.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. E. Mujika. Eus-kal Herria, 3. 943 67 09 15.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro aldakorra. Goizean giro lasaia izango dugu. Hodeiak eta ostarteak tar-tekatuko dira eta hego-mendebaldeko haizearekin eguraldi atsegina izango dugu. Egurditik aurrera haizeak mendebaldera egin, zerua estali eta euritara joko du. Euri gutxi botako du. Tenperatura 13-14 gradura igoko da.

Bihar. Giro motela. Goizean zerua estalita egongo da eta euri zaparrada batzuk izango ditugu. Arratsaldean euria gutxitzen joango da, egun amaierarako ateri geratuko delarik. Haizeak mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak beste koskatxo bat igoko dira, 14-15 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.



BERTSO BERRIAK, POLITIKARIEI EZARRIAK

Pasa den astean hiru urte bete ziren pentsiodunak lehen aldiz mobilizatzen hasi zirenetik. Bada, ez dute, momentuz behintzat, euren protestekin geratzeko asmorik, eta atzo ere kalera atera ziren. Euren aldarrikapenak zabaltzearekin batera, hiru bertso ere abestu zituzten. Atzo Tolosan egin moduan, hurrengo astelehenean Villabonan egingo dute elkarretaratzea. JOSU ARTUTXA

ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba
Elkartaren ohiko batzar nagusirako deialdia

EGUNA: 2021eko otsailaren 10ean.
ORDUA: 17:30ean, lehenengo deialdian.
18:00etan, bigarren deialdian.
TOKIA: Uzturpe Ikastolan.

(Egungo egoeran protokoloa bete eta espazioak antolatze, bertaratze asmoa izanez gero web bidez inprimakia betetzea edo ikastolara telefonoz deitzea eskatzen da)



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484